EBAZPENA: TRANSFERENTZIA-ESKARIA

RESOLUCIÓN: SOLICITUD DE TRANSFERENCIA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Foru Aginduaren Zk. / Nº de Orden Foral: 7106/2018    Data / Fecha: 2018-8-14/ 14-8-2018

| Espedientearen Datuak / Datos Expediente | |
|---|---|
| Espedientea<br>Expediente | 333/2018 |
| Gaia | USTEKABEAK 2018/GORDEXOLA: KALTEEN KONPONKETA EURITE BORTITZAGATIK (EMAKIDA) |
| Asunto | IMPREVISTOS 2018/GORDEXOLA: REPARACIÓN DE LOS DAÑOS PRODUCIDOS POR LAS FUERTES LLUVIAS (CONCESIÓN) |

## Egitatezko Aurrekariak / Antecedentes de Hecho

Gordexolako Udalak, 2018ko ekainaren 28ko idatziaren bidez (sarrera erregistroan 2018ko ekainaren 29ko 16139 zenbakiarekin sartu zena), Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari transferentzia egiteko eskatu dio, "Ustekabekoak" kontzeptuaren kargura, "Kalteen konponketa eurite bortitzagatik" jarduketa finantzatzeko.

Kalteok konpontzeko egin beharreko lanen aurrekontu zehaztua aurkeztu du udalak; kostu osoa, hain zuzen ere, 160.793,69€ izango da, gastu orokorren %13a, etekin industrialeren %6a eta BEZaren % 21a barne.

Geroago, 2018ko abuztuaren 7an jasotako idazkiaren bidez (18195 zenbakiko sarrera-erregistroa), Arrazuria baserrira doan bidea konpontzeko aurkeztutako aurrekontuaren zuzenketa bidali zuen. Beraz, aurrekontuaren zenbateko osoa 161.182,47 € da.

Aurkeztutako aurrekontua aztertuta, osorik onartu da, transferentziaren xede izan daitekeen gastuaren definizioa betetzen duela irizten baitzaio.

Udalak egiaztatu du kreditu baliagarri nahikoa (159,00 €) dagoela aurrekontuan gastu horri aurre egiteko.

Beraz, onartzen den aurrekontua 161.023,47 eurokoa da, transferentziaren xede izan daitekeen gastuaren definizioa betetzen duela irizten baitzaio.

El Ayuntamiento de Gordexola presenta, mediante escrito de 28 de junio de 2018 y con número de registro de entrada 16139 de fecha 29 de junio de 2018, solicitud de transferencia al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales con cargo al concepto de imprevistos, para financiar la actuación "Reparación de los daños producidos por las fuertes lluvias".

El Ayuntamiento presenta presupuesto detallado de los trabajos necesarios para su reparación cuyo coste asciende a un importe total de 160.793,69€, incluidos el 13% de gastos generales, el 6% de beneficio industrial y el 21% de IVA.

Posteriormente, en escrito con número de registro de entrada 18195 de fecha 7 de agosto de 2018, remite corrección del presupuesto presentado para la reparación del camino al caserío Arrazuria. En consecuencia, el importe total del presupuesto asciende a 161.182,47€.

Analizado el presupuesto presentado, se admite en su totalidad por entender que cumple con la definición de gasto objeto de posible transferencia.

El Ayuntamiento certifica que existe crédito disponible en el presupuesto por importe de 159,00€ para hacer frente a este gasto.

Por lo tanto, el presupuesto admitido es de 161.023,47€ por entender que cumple con la definición de gasto objeto de posible transferencia.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D8QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) D8QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.eus

Foru Aginduaren Zk. / Nº de Orden Foral: 7106/2018 Data / Fecha: 2018-8-14/ 14-8-2018

## Oinarriak / Fundamentos

*2017ko azaroaren 21ko 131/2017 Foru Dekretuaren 1.3.a) artikuluan ezartzen da honako gertaera hauek eragindako ustekabekoak hartuko direla aintzat (dekretu horren bidez arautzen dira 2018. urtean Udal Finantzaketarako Foru Funtsean (Udalkutxa) ustekabeko gertaeretarako dauden transferentziak emateko prozedura): «Gertakari naturalek ekarritako kalteak».*

*El artículo 1.3.a) del Decreto Foral 131/2017, de 21 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de concesión de transferencias destinadas a imprevistos del Fondo Foral de Financiación Municipal (Udalkutxa) para el año 2018, especifica que serán tenidos en cuenta los imprevistos que se originen por los siguientes hechos: "Daños producidos por fenómenos naturales".*

*Foru Dekretu honetako 6. artikuluko 2. zenbakian deskribatutako faktoreak aztertuta, ondorioztatzen da artikulu horretako 1. zenbakian arautaka mugaren % 80 eman behar dela (1.3.a) artikuluko kasuetan, % 90era arte).*

*Una vez analizados los factores descritos en el apartado 2 del artículo 6 de este Decreto Foral, se desprende que el porcentaje a conceder es del 80% del límite regulado en el apartado 1 de este mismo artículo (artículo 1.3.a, hasta el 90%).*

*Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu arauemailearen 9.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, foru diputatuak izendatzen dituen Ahaldun Nagusiaren uztailaren 2ko 95/2015 Foru Dekretuaren arabera eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren arabera, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako saileko foru diputatuari dagokio kredituen gastua baimendu eta xedatzea, haren betebeharra aitortzea eta bere sailari esleitutako kredituen ordainketak proposatzea.*

*De conformidad con lo establecido en el artículo 9.b) del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, en relación con el Decreto Foral del Diputado General 95/2015 de 2 de julio, por el que se dispone el nombramiento de Diputados y Diputadas Forales y con el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 86/2016, de 10 de mayo, por el que se aprueba el reglamento de estructura orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, corresponde a la Diputada Foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, autorizar, disponer el gasto, reconocer la obligación y proponer el pago de los créditos asignados a su Departamento.*

*Azaldutako guztiarengatik, bidali egiten da hurrengo*

*Por todo lo expuesto, se eleva la siguiente propuesta*

## Ebazpen Proposamena / Propuesta de Resolución

*1.- Gordexolako Udalari 115.936,90 euroko (onetsi den aurrekontuaren % 72) transferentzia egitea ONARTZEA "Kalteen konponketa eurite bortitzagatik" jarduketa finantzatzeko, 131/2017 Foru Dekretuaren 1.3.a) artikuluarekin bat etorriz eta honi erantsitako aurrekontuaren arabera burutuz.*

*1º.- CONCEDER una transferencia al ayuntamiento de Gordexola por un importe de 115.936,90 euros, 72% del presupuesto admitido, para financiar la actuación "Reparación de los daños producidos por las fuertes lluvias", de conformidad con el artículo 1.3.a) del Decreto Foral 131/2017 y el presupuesto que aparece*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D6QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) D6QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.eus

*en el anexo.*

*Azaroaren 21eko 131/2017 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, ebazpena jakinarazi ondorengo 12 hilen barruan erabat eginda egon behar du eta betebeharrak onartuta eduki behar ditu transferentzia jasotzen duen proiektuak edo jarduerak. Salbuespen kasuetan, eta kasuan-kasuan dagokion justifikazioa onartu ondoren, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako sailak exekuzio-epearen eta betebeharra onarpen-epearen luzapena onartu ahal izango du, eta luzapen-aldia kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da. Gehien jota, 6 hilabete gehiago izango dira, eta, horretarako, interesdunak eskaera justifikatu bat egin beharko du, lehen epea bukatu aurretik.*

*De acuerdo con lo establecido en el artículo 13 del Decreto Foral 131/2017, de 21 de noviembre, el proyecto o actuación objeto de transferencia deberá quedar totalmente ejecutado y las obligaciones derivadas reconocidas en el plazo de 12 meses siguientes a la fecha de notificación de la resolución. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales en supuestos excepcionales y previa aceptación de la justificación pertinente, podrá conceder una prórroga del plazo de ejecución y reconocimiento de la obligación cuya duración se fijará en función de las circunstancias que concurran en la concreta actuación hasta un máximo de 6 meses adicionales previa solicitud justificada por parte del interesado antes de concluir el plazo inicial.*

2.- *Gordexolako Udalari transferentziaren onarpena* JAKINARAZTEA.

2º.- **COMUNICAR** *al ayuntamiento de Gordexola la concesión de esta transferencia.*

3.- *Transferentzia honen zenbatekoa, honako partida honetan* KONTABILIZATZEA: *942129 programa, 2200 organikoa eta 73201 kontzeptua.*

3º.- **CONTABILIZAR** *esta transferencia en la partida: programa 942129, orgánico 2200 y concepto 73201.*

## Ebazpen honen aurkako errekurtsoak / Recursos contra la presente Resolución

*Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, administrazio publiko interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, aurretik errekerimendua jarri ahal izango da.*

*La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse, por la Administración Pública interesada, recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de 2 meses, contados a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio del potestativo requerimiento previo.*

*Hori guztia hala da honako arau hauetako artikulu hauen arabera: batetik, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren —apirilaren 15eko 3/1999 Foru Arauak aldatutakoa— 69. artikuluaren arabera; bestetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluaren arabera eta, azkenik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko*

*Todo ello de conformidad con lo que disponen el artículo 69 de la Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en la redacción dada por la Norma Foral 3/1999, de 15 de abril, en relación con el artículo 114 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas y los artículos 10, 44 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D6QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante ...a de Verificación Electrónica (CVE) D6QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.e...

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Foru Aginduaren Zk. / N° de Orden Foral: 7106/2018 Data / Fecha: 2018-8-14/ 14-8-2018

*29/98 Legearen —abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak aldatutakoa— 10, 44 eta 46. artikuluaren artikuluen arabera.*

*Administrativa, reformada por la Ley 19/2003, de 23 de diciembre.*

ZERBITZUBURUA
UDAL AZTERLANETARAKO ETA TOKI ERAKUND.EKON.LAGUNTZARAKO ZERB
JEFE/A SERVICIO
SERVICIO DE EST.MUNICIPALES Y ASIST.ECONÓMICA ENTES LOCALES

Sin./Fdo.: MARTA VIELBA POSTIGO

ZUZENDARI NAGUSIA
ZERBITZUEN, UDAL HARREMANEN ETA LARRIALDIEN ZUZENDARITZA NAG
DIRECTOR/A GENERAL
DIRECC.GEN. DE SERVICIOS, RELACION.MUNICIPALES Y EMERGENCIAS

Sin./Fdo.: JESÚS MARÍA GARCIA LARRAGAN

Aurreko proposamena onartu da eta, ondorioz, horren edukiarekin bat etorriz ebatzi da.

Se acepta la propuesta anterior y, en consecuencia, se resuelve de acuerdo con su contenido.

Bilbon, 2018(e)ko Abuztuaren 14(e)an
En Bilbao, a 14 de Agosto de 2018

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA
DEPART. DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELAC. INSTITUCIONALES

Sin./Fdo.: IBONE BENGOETXEA OTAOLEA
FORU DIPUTATUA / DIPUTADO/A FORAL

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D8QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) D8QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.eus

## PRESUPUESTO ADMITIDO

| ACTUACIÓN | CAPÍTULOS | PPTO ADMITIDO |
|---|---|---|
| Reparación del camino de la Calzada-El Potón | Pavimentación del camino de acceso al nº13-15 de la calzada El Potón | 7.230,00 € |
| | Seguridad y Salud | 100,00 € |
| | Control de calidad | 50,00 € |
| | Gestión de residuos | 75,00 € |
| Reparación del camino al caserío Arrazuria (Bº Arannzazu) | Trabajos previos | 300,00 € |
| | Escollera | 345,40 € |
| | Firme | 2.158,50 € |
| | Seguridad y Salud | 100,00 € |
| | Control de calidad | 100,00 € |
| | Gestión de residuos | 150,00 € |
| Reparación parcial del camino del Berdugal, en dos tramos: frente al centro de transformación eléctrica y frente al caserío nº18 | Pavimentación del tramo frente al centro de transformación eléctrica en el camino del Berdugal | 12.386,00 € |
| | Pavimentación del tramo frente al nº18 del Barrio del Berdugal | 4.664,40 € |
| | Seguridad y Salud | 100,00 € |
| | Control de calidad | 100,00 € |
| | Gestión de residuos | 150,00 € |
| Eliminación de resalte en el encuentro del camino con la plataforma del puente en Zalzu | Supresión de resalte en camino | 3.209,53 € |
| | Seguridad y Salud | 100,00 € |
| | Control de calidad | 100,00 € |
| | Gestión de residuos | 150,00 € |
| MUP | | 75.581,30 € |
| | **TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL** | **107.150,13 €** |
| | 13% Gastos generales | 13.929,52 € |
| | 6% Beneficio industrial | 6.429,01 € |
| | **SUMA DE G.G. Y B.I.** | **20.358,52 €** |
| | Honorarios por prestación de servicios profesionales | 5.700,00 € |
| | 21% IVA | 27.973,82 € |
| | **IMPORTE TOTAL** | **161.182,47 €** |

| | |
|---|---|
| **Certificado existencia de crédito** | 159,00 |
| **IMPORTE CONCEDIDO** | **161.023,47** |

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D6QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) D6QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.eus

Elektronikoki sinatutako dokumentua. D6QJ3WK91MEZSC5T Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónico (CVE) D6QJ3WK91MEZSC5T en www.ebizkaia.eus